



Agur, Euzkadi Juan Luis Zabala

Hasieratik bertatik gehien gustatu zaidana, lehenik, Lauaxeta berpiztuaren ideia izan da; eta bigarrenik, honek liburuko protagonistarekin daukan hartu-emana. Protagonista nagusia, bestalde, Juan Luis Zabala bera da: kazetaria, idazlea eta Euskaldunon Egunkariko kultura ataleko arduraduna.

Saramagoren “O ano da morte de Ricardo Reis” liburuari buruz egileak berak egiten dituen aipamen ugariatatik ondorioztatzen denez, idazle ospetsu bat berpiztearen ideia badirudi aipatu liburutik atera duela; liburu horretan, Saramagok Pessoa ospetsua berpizten du, Zabalaren liburuan planteatzen denaren antzeko egoera bat sortuz. Baina ideia originala izan ez arren (egilea bera ez da une bakarrean ere saiatu hori ezkututzen), “berpiztu” beharreko pertsonaiaren hautapena (Lauaxeta alegia), bai, erabat originala da –obraren garapen eta ikuspegi historiko, kultural eta soziala erabat originalak diren bezalaxe.

Lauaxeta idazlea aurkezten zaigun era ere azpimarragarria da, hau da, batzuek zergatik ikus dezaketen eta beste batzuek ez; izan ere, Lauaxetak, bizirik dauden euskal kulturako pertsonaien aurrean bere burua aurkeztu nahi duen bakoitzean, “mamu” edo “ikusezin” bilakatzen baita. Hortaz, ezin du eragin berririk izan euskal kulturaren bilakaeran, nahiz eta “bizirik” egon. Era anonimo batez bere burua aurkezten duenean, ordea, benetako pertsona bihurtzen da berriro, eta jendearekin hitz egin eta interaktuatzeko gaitasuna du.

Liburuaren une aurreratu eta jakin batean, protagonista (= egilea) ohartzen denean bera ere hilda dagoela, bere heriotzari buruzko zertzeladak adierazteko bilatzen duen argudioa ez da, aldiz, horren argia. Esaterako, hilda baldin bazegoen, nolatan hitz egin ahal izan zuen Egunkariko zuzendariarekin, eta abar. Egilea bera ohartzen da *gazapo* edo huts horretaz, eta “azaldu ezinezko misterio” bati egozten dio, baina ez da oso konbentzigarria gertatzen, hau da, Lauaxetaren misterioa oso ondo planteatuta dago, baina protagonista nagusiarena ez dago hain ondo lotuta, nik uste.

Beste pertsonaia bat, indar eta xarma handikoa berau, Goizeder da. Liburu osoak daukan misteriozko aura indartu egiten du. Pertsonaia hau liburuko gertakizunetatik nola agertzen den eta nola desagertzen den ikustea artegatasuna sorrarazten du, batez ere ohartzen hasten zarenean, ezen, Lauaxeta ez ezik, protagonista eta beste pertsonaia batzuk heriotzaren munduari dagozkiola.

Goizederrekin badirudi betiereko ihesaldi bat bizi duela eta hori izango litzateke pertsonaiaren ezaugarri nagusia. Pertsonok izan ohi ditugun ohiko balioak pertsona honetan diluitu egiten direla ematen du, aipatu balioetatik haratago egongo balitz bezala, bere jazarleengandik iheska beti, hirugarren pertsonetik harremanak ekidinez, eta labur esanda, bere burutik ihes.

J.L. Zabalaren hizkuntza-erregistroa ere arreta erakartzen duten beste alderdietako bat da. Lauaxetak, esaterako, beti egiten du hitz bere ama-hizkuntzan: euskaraz, bai, baina bizkaieraz beti, hau da, hitz egiteko eta idazteko erabili zuen euskalkia darabil. Gainera, Lauaxetak eta liburuko protagonistak hika egiten diote elkarri; beraz, horri gehitzen badiogu euskara batuaren erabilera txukuna, garbi dago egilea euskararen oso ezagutzaile fina dela.

Gainerakoan, egilearen munduarioak badu, alde batetik, alderdi topiko bat, hau da, edozein abertzale ezkertiarren kezka, ideiak eta sentimenduak; eta beste alde batetik, bere ohiko bizitza gehiago jasan ezin duen Julen Lamarain (= J.L. Zabala) dugu, ordura arte inguratu zaizkion topiko askorekin kritiko samar azaltzen dena, nahiz eta liburuaren amaieran topiko horien jarraitzaile sutsu bilakatu, ez baina era ez-transzendental batez, erabat alderantziz baizik: Julen Lamarainen erabakiak, kezka, zalantza, bilaketa... ikuspegi transzendental hartzeraino (*[...] baina abertzale bat hiltzen denean hildako abertzale bat bilakatzen da [...]*).

Luzaz bizitza opa diot “Agur, Euzkadi” liburuaren egileari, baina egunen batean gu uzteko okurrentzia izango balu –eta akaso nik baino lehenago egingo balu hori– beti gogoratuko nuke eta beti irudikatuko nuke Euskal Herriko mendiak eta landa-guneak zeharkatzen, nekaezin, bizitzatik erbesteratuta bezala, Estepan Urkiaga “Lauaxeta” bananduezinarekin batera, honetaz eta hartaz hitz egiten biak, euskara eta euskal kultura eta Euskal Herria bere solasaldien ardaztat hartuta, eta noizean behinka, Goizederrekin ustekabean topo eginez, hari bere ihesaldian laguntzeko prest beti, egin duena egin duela, zeren, azken finean, odolezko loturak epaitu beharreko egitateen gainetik egoten baitira, egitate horiek gure gustukoak izan ez arren, edo are gehiago, guretzat atsekabe-iturri izan arren.